



ELA eta LABeko ordezkariak ostiralean Hernanin egin zuten eskualdean datorren ostegunean greba orokorra egiteko deialdia.

ARGAZKIA: HERNANIKO KRONIKA

Greba orokor deia ostegunerako

Euskal sindikatuek langileen eskubideen murrizketak salatuko dituzte

Euskal sindikatuek datorren ostegunean, urtarrilaren 27an, greba egiteko deia luzatu dute "errespetatu langileen eskubideak!" aldarrikapena zabaldu eta Gobernuak hartutako erabakiei erantzuteko: "Benetako aldaketaren alde borrokan jarraitu behar dugu, beste eredu ekonomiko eta sozial baten alde, herritarrek gutxi batzuen ekonomiarren mesedetan ez daitezen erabili, ekonomia herritarren mesedetan baizik" aldarrikatu dute ELA, LAB, STEE/EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek. ESK sindikatuak ere bat egin du deialdiarekin.

Euskal Herriko sindikatu abertzaleek urtarrilaren 27an lanik ez egiteko eskatu diete langileei hauen aurka agintariak duten jokabidea salatzeke, konkretuki pentsio sistema publikoaren aurka hartuko diren erabakiak arbuizatzeko (adina 67 urtera luzatzea, kotizazio urteak gehitzea edota erretiroaren kalkuluan urte gehiago kontu-

tan hartzea besteak beste).

Aipatutako sindikatuen ustez, langileen eskubide eta soldatak murrizten eta elite ekonomikoak laguntzen ari dira: krisialdiaren aitzakiaz, bankak agindu eta Europako estatu ezberdinek men egin; lan eskubideak kendu, soldatak murriztu, gastu publiko eta soziala mugatu,... eta eliteen zama fiskala arindu,

hobariarekin saritu eta iruzur fiskalaren aurrean begiak itxi.

"Pentsio sistema publikoaren amaitu eta pribatizatu nahi dute, espekulatzeko. Europa osoan ari dira honetan, berriro ere banka salbatzeko gure poltsikoetako diruaz. Botere ekonomikoak eskatu eta botere politikoak gauzatzeko duen lapurreta "legala" da hori".

Bankarekin uztartuta

Gasteiz, Iruñea eta Madrileko Gobernuak berdind jokatzeko dutela uste dute sindikatuek, PSOE, PNV edo UPNk bidea konpartitzen dutela, "banka eta enpresa handiekin aliatu-rik daude euren poltsikoak betetzen jarraitzeko, langile klasea gero eta gehiago estuturik" adierazi dute sindikatuek ostegunean greba egiteko deialdia zabaltzerakoan.

Eraso hauen kontra erantzuten segituko dutela diote, era berean, "guretzat sorrarazten miseriazko etorkizuna ez dugulako nahi".

Euskal sindikatuen ustez, denek pentsio duina izateko neurriak hartu behar dira, "baina ez orain arteko norabidean, kontrakoan baino, hau da, aberastasunaren banaketan oinarrituta".

Sindikatuak eskaera konkretuak ere egin dituzte: batetik euskal langileek euren pentsio sistema propioa erabakitzeko eta sortzeko ahalmena eta bitartekoak eskatu dituzte eta bestalde, kalitatezko enplegua sortzeko neurriak, lan merkatuan gazte eta emakumeen sarrera, baina aukera eta baldintza berdinekin, eta fiskalitate justu eta progresiboa, hau da, "gehien irabazten dutenek gehiago ordaindu dezatela".



Hauari Hanani sahararrarekin solasean

Saharar herriaren egoera ez da erraza. Eredu okupatueta liskarrak eta Tindufeko kanpamentuetan zailtasunak dituzte. Hauari Hanani sahararra etorri da aste honetan burutuko den elikagaien bilketa zuzenean ikustera eta berak eman digu hango egoeraren berri. /4

KIROLA / 2

Urrezko dominak eskuratu dituzte herriko atletak

GIZARTEA / 3

Txakur heziketa saio aitzindaria jarriko da abian

KULTURA / 5

Lasarte-Oria eta Zarautz lehiatu ziren bertsoan

KIROLA / 6

Bikotekako bola txapelketa hasi zen igandean

MATRIKULA DBH-ESO

ZABALIK ABIERTA

urtarrilaren 31tik
otsailaren 11ra
del 31 de enero
al 11 de febrero

zatoz ven!!

Ikastetxea
ikusteko aukera
Puertas
abiertas

Modelo "D" Eredua

29 urtarrilak / enero
11:00etan / 11:00h



SALESIANOS URNIETA SALESIARRAK

Ergoien auzoa, 6
Telf. 943 551 789

www.salesianosurnieta.com



Urrezko atletak Lasarte-Orian

LOKEko atletismo taldeko gazteek urrezko lau domina jaso zituzten Gipuzkoako txapelketan

Lehengo asteburuan, urtarrilaren 14 eta 15ean, Junior, Jubenil eta Kadete mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Anoetako belodromoan. Bertan, LOKEko bost atleta gazte hainbat probatan parte hartu eta emaitza paregabeak lortu zituzten: lau Gipuzkoako txapelkun eta txapeldun orde bat ditugu herrian.

Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Oria Kirol Elkarte-ko atleta gazteek lan ona burutu zuten lehengo astean Donostian egin ziren Gipuzkoako txapelketan. Oscar Goikoetxearen zuzendaritzapean lan egiten duten herriko atleta gazteek bost domina eskuratu zituzten eta horietako lau urrezkoak izan ziren.

Urtarrilaren 14an ostiralean eta 15ean larunbatean, junior, jubenil eta kadete mailako Gipuzkoako txapelketan Irati Larrañaga, Gaizka Ormazabal, Eneritz Imaz, Ane de Miguel eta Ane Galardi izan ziren LOKEko ordezkari.

Gipuzkoako txapelketan ez da sailkapenik egoten, zuzenean finala jokatzeko da eta proba bakoitzeko denbora edo marka hobereana egiten duenak lortzen du domina.

Juniorrak

Beraz, haien hoberena eman behar dute atleta gazteek eta LOKEko Irati Larrañaga eta Gaizka Ormazabalek horrela egin zuten.

Junior mailan lehiatu ziren bi atleta hauen artean lau domina eskuratu zituzten eta horietako hiru, gainera, urrezkoak izan ziren.

Irati izan zen Gipuzkoako txapelketa hauetan bi txapela eskuratu zituen bakarra.

Luzera proban, lehengo jautziaren 4,99 m. eginez ziurtatu zuen Iratik urrezko domina

Altueran ere, lehengo saikakeran 1,35 metroko jautzia egin zuen eta txapelketa eskuratu zuen.

Ostean, 1,40 metrora jarri zuen listoa. Tamalez, ez zuen altuera hori gainditu.

Honetaz gain, 200 metroetan ere parte hartu eta laugarren izan zen Larrañaga atleta



Irati Larrañaga, Gaizka Ormazabal eta Ane Galardi LOKEko atletak Gipuzkoako txapelketan eskuraturako dominetako batzuekin.

gaztea.

Abiadura probetan lortu zituen Gaizka Ormazabalek bere bi dominak.

Atleta lasarteoriatarra 400 metro proban, lehengo izan zen helmugan 54,10 segundoko denborarekin eta bigarrenari 24 ehuneko atera zizkion, gainera.

Zilarrezko domina, 200 m.

proban eskuratu zuen. Ormazabalek ezin izan zuen Aitor Zabala atleta tolosarra gainditu, 22,91 s., eta 23,26 segundoko egin zituen amaieran.

Jubenilak eta kadeteak

Ane Galardi kadeteak ere lan paregabea egin zuen luzera jautzian.

Bigarren jautzian, 4,9 metro egin zituen Galardik eta probako bigarren zen momentu horretan.

Beste jautzi guztiak baliogabeak izan ziren arren, bosgarrenean, 5 metrora iritsi zen eta jautzi horrek urrezko domina eman zion Lasarte-Oriako atleta gazteari, bigarrenari bi zentimetroko errenta atera baitzion.

Jubeniletan, azkenik, Eneritz Imaz eta Ane de Miguel talde kideek 60 m. proban lehiatu ziren. Eneritzek 9. postuan amaitu zuen eta Ane de Miguelek hamaseigarrenean.

Eneritzek, gainera, 200 metroko proban ere hamar lehenen artean egotea lortu

zuen, zazpigarren amaituaz.

Markak egiten

Honetaz gain, Gipuzkoako eta Euskadiko federazioen arteko liskarra dela eta, Oskar Goikoetxeak zuzentzen dituen atleta gazteek ez dakite ziur Euskadiko txapelketak jokatuko diren edo ez.

Bitartean, asteburu honetan, LOKEko gazteek lehiaketak izan dituzte. Irati Larrañagak jautzi hirukoitzeko Gipuzkoako txapelketako proba izan zuen ostiralean eta irabazi egin zuen, lehengo postuan geratu zen 4,92ko markarekin.


Taldeko bestekideek Parte-hartze askeko probak izan zituzten.

Hauetan txapelketetarako baliagarri diren markak egin ahal dituzte eta Estatuko marketatik gertu dabilta atleta gazteak. Esate baterako, Gaizka Ormazabalek ehuneko batzuk jaitea bestetik ez du eta Ane Galardik luzera jautzian bost zentimetro gehiago egin beharko litzuzke. •



LOKEko gazteek gogor entrenatzen dute astean zehar txapelketetan markak eta denborak hobetzeko.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Txakur-heziketa akordio aitzindaria

Lehenengo saioa asteazkenean, 19:00etan egingo da kultur etxean

Lasarte-Oriako Udalak eta "Asociación Noble y Fiel Amigo" elkarteak hitzarmen bat sinatu zuten ostira-lean.

Honen bitartez, Gipuzkoan aitzindari izango den txakur-heziketa programa jarriko da martxan hurrengo astean, urtarrilaren 26an.

Helburua, "txakurrak arduratsuki edukitzeari buruz herritarrei informazio espezializatua eskaini eta, hartara, bizikidetzan aurrera egin, osasun-arazoak saihestu eta txakur-abandonatzeen kopurua murriztu ahal izatea", hitzarmenaren testuan ageri denez.

Hitzaldiak eta praktikak

Txakur-heziketako programa aitzindari hau ia hilabetero Manuel Lekuona kultur etxean eskainiko diren sei hitzaldik osatuko dute.

Hitzaldi monografiko horietan, hainbat gai interesgarri jorratuko dira.

Lehenengo hitzaldia, ares-tian aipatu bezala, urtarrilaren 26an, asteazkenean izango da Manuel Lekuona kultur etxean 19:00etatik aurrera. Honetan, txakurren edukitze arduratsuari buruz hitz egingo da.

Eta programa teoriko hori bi lantegi praktikorekin osatuko da: txakurren mundu emo-



Jesus M. Zaballos alkatea eta Manuel Villarrek "Asociación Noble y Fiel Amigo" elkarteko presidentek sinatu zuten hitzarmena.

zionala eta jokabidearen aldaketa. "Ekintza praktikoa horiek Atsobakarreko zelaian egingo dira," azaldu zuen Jesus Maria Zaballos alkateak.

Ekimen hau "eskubide eta betebeharren gizarte baten barruan, animaliak maitatzen eta errespetatzen dituztenek udaleko administrazioarekin, egiten duten elkarlana erreferente izatea espero dugu", adierazi zuen alkateak.

Oinarri zientifikoa

Iazko uztailean, Sanitateko Departamentuak ikastaro teoriko-praktiko bat antolatu zuen

hainbat aditu etologorekin. Haietako batzuk programa hau inolako irabazi-asmorik gabe emango duen ANFA elkarteko kideak dira.

Txakur-heziketako programa hau "elkarte moduan bilatzen gunden aukera da guretzat. Jendea txakur-kultura onaren arloan formatzeko eta informatzeko", azaldu zuen Manuel Villarrek, elkarteko presidentek.

Horregatik, Lasarte-Oriako Udalarri eskerrak eman zizkion, proiektu hau martxan jartzeko izan duen prestutasun eta ilusio handiagatik.

Etologo esperientziadun honen iritziz, "aurrerapauso handi bat da, oso beharrezkoa dena eta agenteen eta administrazioaren arteko koordinazioa eskatzen duena".

Villarrek halaber azpimarratu nahi izan zuen heziketa-programa honen edukia "ez dela guk asmatutako zerbait", eta nabarmendu zuen eskainiko den formazio guztiak etologia daukala oinarritzat, "animalien portaera biologiarekin eta psikologiaren ikuspuntutik ikertzen duen zientzia".

HEZKUNTZA

Aurrematrikula garaia iritsi da

Lasarte-Oriako ikastetxeek urtarrilaren 31n irekiko dute datorren ikasturterako aurrematrikulatze epea.

Hori dela eta, Landaberri ikastolak eta Zumaburu-Sasota ikastetxeak 11-12 ikasturterako haurra matrikulatu nahi duten gurasoentzat informazio bilerak antolatu dituzte.

Landaberri ikastolak 2008 eta 2009an jaiotako haurren gurasoentzat prestatutako bilera, urtarrilaren 28an, ostiralean izango da arratsaldeko 15:15ean Garaikoetxea eraikineko soinketa gelan.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak, berriz, otsailaren 3an, arratsaldeko 17:00etan egingo ditu bi bilera, bat euskaraz, bestea gazteleraz, Zumaburu eraikinean.

Gurasoek otsailaren 11a arte izango dute aukera matrikula egitekoa. •

INAUTERIAK

Inauteriak prestatzeko bilera

Herriko zenbait elkarte ari dira dagoeneko inauteriei begira lanean eta deialdi eta gonbite zabala egin nahi diete herriko elkarte eta norbanako guztiei festan parte hartu dezaten.

Lan-taldeak bilera bat antolatu du, datorren asteartean, hilaren 25ean arratsaldeko 18:00etan Ttakunen, Geltoki kalea 4 zenbakian. •

Oboe eta organo emanaldia komentuan

Danok Kide VI. Musika Topaketako saio berria dugu hurrengo ostiralean, urtarrilaren 28an, 19:30etik aurrera. Casandra Alvarez eta Alberto Saez-en eskutik, oboe eta organo kontzertua entzuteko aukera izango da Brigitarren komentuan.

Bi musikariak batera eta bakarka musikari handien, hala nola, Bach, Albinoni edo Telemannen lanak eskainiko dituzte.

Musika ibilbidea

Casandra Alvarez oboe joleak Errioxako kontserbatorioan edo Musikenen egin ditu bere ikasketak eta Errioxako Orkestra sinfonikoko edo Euskal Herriko Gazte Orkestrako kide izan da.

Egun Francisco Escudero kontserbatorioan organo ikasketak egiten ari da eta Lucas Macias maisuak zuzentzen

duen Oboe Graduondokoa dago.

Goi mailako ikasketak


Alberto Saezek, berriz, Gasteizko Kontserbatorioan, Musikenen, Francisco Escudero kontserbatorioan egin ditu saxofoi, piano, orkestra zuzendaritza eta organo ikasketak eta egun Zaragozako Goi Mailako Kontserbatorioan

organo ikasketekin jarraitzen du.

Piano eta organoko hainbat kontzertu eskaini ditu Alberto Saezek bakarlarri edo laguntzaile moduan. Lasarte-Orian, iaz Antonio Mercero-oren omenaldian ikusi gunden, baita Robert Expert kontratenore frantsesa eta Ainhoa Mercero sopranoaren laguntzaile moduan ere. •



Alberto Saez eta Casandra Alvarez dira kontzertua eskainiko duten musikariak.



Antzezlan sakona izan zen ostiralekoa

La Guindalera antzerki taldeak ostiralean aurkeztu zuen Manuel Lekuona kultur etxean *La ultima cena* antzezlan.

Ignacio Amestoy kazetari eta antzerki idazleak idatzitako antzezlan da. Bertan, aita semeak aurkitzen dira aurrez aurre, hainbat urteren ondoren. Aita (Jose Maya) hirurogei urte inguru ditu eta bere

burua intelektual konprometituta du, baina kale egin du utopia zaharrak bete nahi izatean. Semea (Bruno Lastra) berriz borroka armatuko kide da eta bapatean aita bisitatzerantz joan da. Elkartzen direnean eztabaida gogorak sortzen badira ere, semea gauza garrantzitsu bat aitortzera etorri da aitarengana, oso gaixo dago.

Hauari Hanani Sahararra

“Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan egoera larria da”

Saharar Herriaren Lagunak elkarteak elikagai bilketa egingo du urtarrilaren 29a bitartean

**Saharar herriaren egoera ez da erraza. Ere mu okupatu-
tan liskarrak daude eta Tindufeko kanpamenduetan bizi
diren sahararrek ez dute bizimodu erraza. Lasarte-Orian
Saharar Herriaren Lagunak elkarteak elikagai bilketa
martxan jarri du kanpamenduetara bidaltzeko. Ikastetxe
eta supermerkatuetan ostiralera arte egingo da bilketa
eta larunbatean, urtarrilaren 29an, Urbilen egongo dira.**

Nerea EIZAGIRRE

Saharar herria banatua dago. Batzuk eremu okupatu-
tuetan bizi dira, besteak Tinduf eremuko
kanpamenduetan eta azkenik, beste herrialdeetara iristea
lortzen duten sahararrak daude. Hauari Hanani duela
bi urte iritsi zen Lasarte-Oriara. Saharar kanpamenduetako
herritar honek elikagai karabanako banaketan lan egiten
zuen eta kanpamenduetako ikuspuntua bizi izan du. Aurten
bilketatik nondik norakoa ezagutu ditu. Hauari Hananirekin eta Txema Benito
Saharar herriaren lagunak elkarteak kidearekin egon
gara solasean kanpamenduei eta karabanari buruz.

Saharar errefuxiatuen kanpamenduak Arjeriako azken
herria den Tindufen inguruan daude. Hauetan, Sahara
Mendebaldetik ateratzen diren pertsonak eta haien familiak
bizi dira, guztia, 200.000 bat pertsona.

“Lau wilaya edo probintzia daude eta bakoitzean
dairak, herrixkak daude. Ez dira berdinak, esate baterako,
Auserd eta Aaiun-en sei daira daude, Smara eta Dajlan
zazpi. Eta bestetik, Otsailaren 27ko herria dago Bertan,
emakumeentzako ikastaroak dauden eskola bat dago,”
zehazten du Hauarik sahararrak.

Kanpamendu bakoitzean zerbitzuak daudela ere azpimarratu du, “ura eramateko,
hezkuntza, minusbaliatuen babeserako bulegoa, polizia...
Zerbitzu minimoak egon daitezten ziurtatzen saiatzen da
gobernua.”

“Esate baterako, zisternakamioi batek banatzen du ura
eta familia bakoitzari ur-biltegia betetzen zaio” aipatu du
Txema Benito herritarrek.

Honetaz gain, “herrixka bakoitzak lau auzo ditu eta
hauetan haur-eskola, adminis-

trazio bulegoa edo Udala eta eskola aurkitu daitezke,” azaldu du saharar lagunak.

Oinarritzkoa falta

Kanpamenduetako adminis-
trazio gauzak alde batera utzita, “egoera ez da ona. Duela
bi urte eta erditik hona, Europar Batasunetik doazen
laguntzak egoera ekonomiko-
agatik murriztu dira eta horregatik
egoera larria da,” adierazi du Hauarik.

“Elkartasun taldeak daude herrialde
desberdinetan, baina haiek bidaltzen duten
laguntza ez da nahikoa kanpamendu
guztientzako,” jarraitu du.

Oinarritzko elikagaiak, olioak, irina eta azukrea bertan
aurkitzea oso zaila dela adierazi eta botikak ere falta
dela azpimarratu du, “2006tik ez dago botikarik.
Jendeak dirurik ez duenez, ezin du
Tinduferako bidaia egin eta botika
naturalak hartzen ditu. Baina gaixotasun
batzuk sendatzeko, hori ez da nahikoa.”

Karabanak eta banaketa

Egoera horrela izanik, Saharar
kanpamenduetan bi moduetan
laguntzen dela jakin arazi digu
Hananik, batetik elikagai karabanak
eta bestetik, proiektuak.

“Europako laguntza fondotik dator
laguntza eta herrialdeetako fondoetatik.
Baina 2005ean, laguntza hori asko
murriztu zen eta azken urtee-

tan are gehiago. Laguntza horiek
nahikoak ez direnez karabanak bidaltzen
dira,” azaldu digu Txemak.

“Estatu Espainiarrean ia probintzia
guztietan egiten da elikagai bilketa.
Kopuruz handiena Andaluziako da eta
Kantabrian ere asko biltzen da. Italian
ere egin zen behin, baina ez dakit
jarraitzen duten,” gaineratu du Hauari
Hananik.

“Guztiak batuz, zerbait laguntzen
dugu behintzat. Euskadin 450 tona jaso
ziren iaz, baina kanpamenduetan 200.000
bat pertsona dira. Beraz, ongi banatuz gero
ere, apur bat besterik ez zaie iristen,
2 kilo pertsonako edo. Baina guztiak
kontuan izanik, beharra asetzen dute,”
adierazi du Saharar herriaren laguneko
kideak.

Hauarik gainera, elikagaien banaketaren
berri eman digu, “karabanaren arduradun
eta Ilargi Gorriaren arteko elkarlanari esker
eramaten da aurrera. elkarte honek wilaya
eta daira bakoitzean ordezkaritza bat baitu”.

“Banaketa garbia izaten da eta gobernuak
ongi egin dela kontrolatu ahal izateko
estruturatu bat jarraitzen da. Lehenik,
lautan banatzen da lau probintziak eta
Otsailak 27a. Gero herrixken arabera eta
gero lautan auzoetara. Bertan arduradun
batzuk daude, emakumeak direnak eta
hauek dute auzoan bizi direnen zerrندا
eta iristen denaren arabera banaketa
egiten dute,” azaldu du sahararrak.

“Batzuetan familiako kideen arabera
egiten da banaketa, besteetan kutxa
batean dagokienez oinarritzko elikagaiak
ematen zaizkie familiei.

Baina beti iritsitako elikagaien proportzio bat,” gehitu du.

Proiektuak

Horretaz gain, proiektuak daude. “Elkar-
tean proiektuak edo hemengo herrien eta
hango dairen arteko senidetzeen ondorioz
egiten diren proiektuak dira. Esate baterako,
Andoingo Udalak Amgalko herrian eskola
bat egin du, eta Getxoko Udalak mar-
txoaren 8ko eskola finantzatu du,” aipatu
digu Txemak.

“Haur-eskolak, ordenagailuak, minusbaliatuen
laguntzerako proiektuak... Euskal Herriko
herrien proiektuak dira gehienak eta
senidetzeen ondorioa,” gaineratzen du
Hauarik.

Bidalketa atzeratu

Gauzak honela, urtero bezala, Saharar
Herriaren Lagunak elkarteak martxan jarri
du VII. Sahararen aldeko Euskal karabana
eta bilketa egiten ari da herrian.

Hala ere, aurturten karabana atzeratu
gingo dela azaldu digu Txemak, “ohikoa
da karabana

otsailan bidaltzea baina aurturten eremu
okupatuan dauden arazoak medio, fronte
polisarioak jakin arazi digu atzeratu
gingo dela, maiatzera edo. Baina epe hori
ez da ziurra”.

Horregatik, Lasarte-Oriako taldeak eta
eremuko beste batzuk elikagai bilketa egun
hauetan egiten ari dira, “beste batzuk
aurrerago egingo dute eta ahal dugunean
guztira biltzen dugun,” adierazi digu herriko
taldeko kideak.

Eta Hauarik “gaur bilketa bat egin
dugu eta jende solidario asko dagoela ikusi
dut. Ea 29rako zenbat biltzen dugun. Orduan
ikusiko dugu. Hala ere, jende solidario asko
dago. Saharar herritarrengan pentsatzen
duten pertsona asko dago eta horregatik oso
eskertua nago,” aipatu digu.

Gauzak honela, Txemak “ostiralera arte
eskoletan eta supermerkatuetan egingo dugu
bilketa eta larunbatean, Urbilen egongo gara.
Bertan elikagai bilketa egiteaz gain,
informazioa emango dugu. Beti ere, jendea
interesatua badago,” gogoratu du. •

Hauari Hanani sahararrak lehenengoz bizi du karabana gure ikuspuntutik.



Lagun arteko bertso desafioa izan zen

■ Jalgi kafe-antzokian jokatu zen bertso desafioa ostiral gauean ■ Desafioan Lasarte-Oriako bertso eskolako eta Zarauzko *Motxian* bertso eskolako hiruna kide aritu ziren Imanol Lizardiren esanetara

Maiatzean hasiko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketara aurkeztuko dira herriko hainbat bersolari eta herriko bertso eskolak beste herri batekoari desafioa botako dio hilero, entrenamentu gisa. Lehenengo desafioa Zarauzko *Motxian* bertso eskolari bota zioten, hauek onartu eta ostiral gauean ederki aritu ziren Jalgin.

MARI KARMEN ORMAZABAL

Desafiorako ariketa bereziak prestatu zituen Imanol Lizardi gai jartzaileak parte hartzaileei. Maleta handia hartuta etorri zen Jalgiko desafiara gai jartzailea.

Lasarte-Oriako bertso eskolatik Beñat Iguaran, Unai Muñoa eta Zigor Iriondok hartu zuten parte; Zarauzko *Motxian* bertso eskolatik berriz, Aitor Urbietta, Oier Aizpuru eta Markel Izagirre gazteak. Aipatzekoa da Markel 15 urte besterik ez dituela, eta bere lehenengo plaza izan zela ostiralekoa.

Imanolek jarri zien lehenbiziko gaia bata besteari aurkeztea izan zen, baina lasarteoriatarrek zarauztarrak aurkeztu behar zituzten eta alderantziz. Elkar ederki zirikatu zuten, horretarako aukerarik ez zuten galdu.

Agurraren ondoren, gai-jartzaileak maleta handia ireki eta Zarauzko taldeari *Bob Esponja* pampina eman zien eta Lasarte-Oriakoei Porrotxena. Olentzerok Imanoli esan omen zion aruten haurrek *Bob Esponjaren* pampina gehiago eskatu dizkiotela Porrotxenak baino eta bakoitzak berea defendatu behar zuten.

Hurrengo ariketa ez duten erraza izan bertsolariek, herri bakoitzeko kide bana altxa arazi eta begiak estali zien.

Zarauztarrak hasita, beste kide batek zakutik ateratako gauza bat deskribatu behar zuten bere herrikideak asmatu zezan, baina lasarteoriatarrek ez asmatzeko moduan. Zarauztarrek danborra eta boxeoko goantea asmatu zuten, lasarteoriatarrek berriz, dromedarioa bakarrik.

Bakarka ere jarri zituen bertsotan Imanolek. Muñoak Hego Ameriketatik etorri berria den haur bati abestu zion, "ikasgelan hiru egunetan ez du hitzik egin, eta bapatean a que maldito pais me habeis traído bota du".

Binaka ere jarri zituen bertsolariak berriz. Batek pertsonai baten irudia ikusi eta mimikaz adierazi behar zion besteari nor zen, honek koplatan esan behar zuten uste zuten izena. Maialen Lujanbio eta Ana Urchueguia erraz asmatu zituzten, Belen Esteban berriz, ezin.

Tabakoaren legea hizpide

Tabakoaren legea zela eta, Oier tabernariaren paperean jarri zuen gai jartzaileak eta Aitor berriz, taberna barruan erre nahi zuen bezeroa. Ahalgin guztiak egin zituen Aitorrek, baina azkenean ez zuen zigarrorik piztu ere egin.

Azken agurra kantatu aurretik Zigor eta Muñoa *segidillarekin* bikain aritu ziren ikusleen artean bertsotan, bertan zaudenei errebaso txiki bat ematen. •



Maleta handiarekin etorri zen gai jartzailea ostiralean, eta gai eta ariketa bereziak jarri zituzten bertsolariei.



Saio politta egin zuten zarauztarrek tabernako barraren bi aldetan.

BERTAKO FABRIKAZIOA

Solomoa baratxuritan-Baserri pate

Odolkia- Solomo ontzutua

Tripakiak- Saltxitxak

Etxeko txorizoa

Txistorra

Basurde burua

ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

**Gosariak
Hamaiketakoak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Urtebetetzeak**

...

NAGUSI BERRIAK
Ordutegi berria
Giro berria



WIFI GUNEA

**Oria Etorbidea Ibaiondo Poligonoa 4 • Tel.: 943 365557
Lasarte-Oria**

**ERREKATXO
JATETXEA**

**KARTA
eta
EGUNEKO MENUA**

Herrikoak aurretik txapelketa hasieran

- Gipuzkoako Bolo Txapelketako bikotekako lehen tirada jokatu zen atzo Lasarte-Orian
- Lau tirada jokatu dituzte guztira, igandero, Mutiloa, Añorga eta Legazpin urrenez urren

TXINTXARRI

Azto jokatu zen Gipuzkoako Bolo Txapelketako bikotekako lehen tirada eta Lasarte-Orian izan zen. Txapelketa bi zatitan jokatu zen, goizean tirada bat izan zen eta arratsaldean bestea. Arratsaldeko tirada gainera, oso borrokatua izan zen, berdinketa ugari medio dezente luzatu zen, arratseko 19:00ak inguru bukatu zuten.

Guztira Gipuzkoa osoko 28 bikotek hartu zuten parte Michelin Udak Kirol Guneko bolatokian.

Taldeko emaitzak

Urtarrilaren hasieran izan zuten denboraldiaren hasiera Taldeko txapelketarekin. Ez zuten zorte askorik izan herrikoek eta uste baino okerrago ibili ziren. Idiazabalena eta Ategorriaren urtarrilean jokatuko txapelketan azken postuan geratu ziren herriko bolariak.

Binakako emaitzak

Atzo jokatu zen tiradan berriz, herritarrek oso ondo ibili ziren eta lehenengo postuan geratu ziren, bai binakakoak, baita banakakoan ere. Lehenengo postuan Jose A. Arroyo eta Mikel Arroyo lasarteoriatarrek geratu ziren 95 birlekin. Bigarren berriz, Legazpiko Jon Oriain eta Mikel Ormazabal 94 birlekin. Hirugarrenen ere 94 birla

bota zituzten, Legazpiko Xabier eta Pedro Lazkano. Laugarren postua lasarteoriatarrentzat izan zen, Jesus Lasak eta Iñaki Salsamendik 92 birla bota zituzten. Bosgarren postuan, Ereñotzuko Ibon eta Antonio Miner geratu ziren 92 birlekin. Seigarrenak Zeraingo Antonio Alustiza eta Luis Aizpeolea izan ziren 92 birlekin eta zazpigarrenak herritarrek, Joxean Montes eta Joxean Lasa 91rekin.

Banakako emaitzak

Banaka guztira 59 bolari hartu zuten parte eta probaren buruan berdinketa oso gogorra izan zen herriko bi bolariaren artean 48 birlarekin eta beste jaurtiketa extra batzuk behar izan zuten berdinketa hausteko. Azkenean herriko Mikel Arroyo gailendu zen, bigarrena, herrikoa ere, Jesus Lasa izan zen, hirugarren Gabiriako Iñaki Maiz, laugarren Legazpiko Jose M^o Ugarte eta bosgarren Legazpiko ere, German Gereñau, seigarren Urrietako Jose A. Belaunzarán eta zazpigarren Hernaniko Aurelio Santos.

Hurrengo tiradak

Lasarte-Oriako txapelketako lehenengo tirada izan da, hurrengo urtarriaren 30ean izango da Mutiloan. Tiradak igandero izango dira, beraz, otsailaren 6an Añorgan izango dira eta azkena Legazpin jokatuko da, otsailaren 13an. •



Mikel Arroyo herritarrek lehenengo postua lortu zuen atzo, bai bikotekako tiradan, baita banakakoan ere.



Gipuzkoa osoko bolari asko etorri ziren atzo Michelin Udak Kirol Guneko bolatokira. Ikusmin handia sortu zuten berdinketek.

Futbol porrako 2. itzulia hasiko da asteburuan



Javier Olaizola eta Itxaso Garcia Ostadar K.F.ko lagunak izan ziren aurkezpenean.

Ostadar K.F.ak Futbol Ligako 2010-2011 denboraldiko bigarren itzuliaren porra antolatu du.

Boletoa eta porrako oinarriak dagoeneko ohiko tabernetan daude eta urtarriaren 29ko 17:00ak arte bete eta utzi ahaliko dira tiketak.

Jokalaririk aukeratu

Aurreko itzulian bezala, liga jokalaririk taldeetan banatuko dira, hala nola, atezainak, atzelariak, zentralak edo aurrelariak eta boleto bakoitzean 11 jokalariko taldea osatu behar da talde bakoitzetik jokalaririk bat aukeratzuz.

Bigarren futbol porra hau urtarriko 30eko asteburuan hasiko da eta ligako azken jardunaldian, hau da, maiatzaren 22an amaituko da.

Sariak

Jardunaldi bakoitzeko saria egongo da, 60 euro eta Porrako lehenengo eta bigarren sailkatuek, 360 eta 180 eurotako sariak izango dituzte.

Era berean, hiru urdaiazpiko zozketatuko dira porrako partehartzaileen artean eta azken sailkatuak ere urdaiazpikoa izango du.

Puntu gehien eskuratzen dituen tabernak ere saria izango du.

Eta gogoratu, bi porren onenak 1000 euro eskuratuko dituela.

Partehartzera gonbita

Ostadar K.F.k lasarteoriatar guztiak gonbidatzen ditu boletoa bete eta porran parte hartzera. "Horrelako ekimenek esker, elkarteak laguntza ematen zaio Lasarte-Oriako kirol eskaintza hobetzeko," adierazi dute arduradunek.

Sari banaketa

Era berean, antolatzaileek gogorarazten dute, lehenengo itzuliko sari banaketa ostiralean, 19:00tan Ainhoa tabernetan izango dela. •

Egunero

Erakusketa

TXEFO, ARTEA TALERRA izeneko erakusketa ikusgai. Txefo Mendezzen argazkiak dira. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan. EUSKARAZ.



Ostirala, 28

Kontzertua

GORA GORA KIDS taldearen emanaldia. Talde honek nagusiki rocka lantzen du. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan. EUSKARAZ.



Larunbata, 29

Antzerkia

NORK IKUSI DU DULTZINEA? haurrentzako antzerkia eskainiko du Agerre Teatroko lagunek. Sarrera, 3,30 euro. Kulturetxean, 18:00etan. EUSKARAZ.



Espetxeko bizitza gogorari buruzko filma ostegunean

UN PROFETA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Tahar Rahim, 19 urteko gaztea espetxean sartzen dute 6 urteko espetxe-zigorra betetzeko. Barruan bizitza gogorra da, baina bere dohaiei eta karismari esker, espetxeko mafiari aurre egiteko gai da.

OSTEGUNEAN, 27AN
KULTURETXEAN 21:30EAN
SARRERA, 4, 30 EURO. GAZTELANIAZ



Igandea, 30

Zinea

HARRY POTTER Y LAS RELIQUIAS DE LA MUERTE filma eskainiko dute haurrentzat. Sarrera, 3,30 euro. Kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ.



Krosa

DONOSTIAKO NAZIOARTEKO LVI. KROSA egingo da Zubietako Hipodromoan Gipuzkoako Atletismo Federazioak antolatuta. Krosa goizeko 10:30ean hasiko da eta eguerdira arte luzatuko da.



Ostirala 4

Santa Eskea

SANTA AGEDA BEZPERA eguna ospatzeko, Bertso Eskolako, Xumelako eta Musika Eskolako kideak eskean aterako dira herriko kaleetan zehar. Arratseko 19:30ean abiatuko dira Jalgi kafe-antzokitik.



Oharrak

Santa Eskerako Erketzek entsaioak prestatu ditu

Urtero bezala, Erketz dantza taldeko kideak baserri base-ri ibiliko dira kantari Santa Ageda egunean, eskean. Horretarako entsaioa prestatu du ostiral honetan, hilaren 28an, iluntzeko 20:00etan Zumaburu eskolan duten lokalean. Animatu eta azaldu!

Arratiako Jotien ikastaroa

Erketz Dantzaren Lagunak taldeak, urtarrilean hasita, Arratiako Jotien ikastaroa antolatuko du. Ikasi nahi duen oro dago gonbidatuta, azaltzea besterik ez du, asteartero 20:00etatik 21:15era Zumaburuko eskolara. Animatu zaitzete!

Elikagaien bilketa Sahararen alde

Lasarte-Oriako Sahar Herriaren Aldeko Elkarteko kideek Sahararen Aldeko Euskarabandarako elikagai bilketari ekin dio dagoeneko. Bilketaren azken eguna hilaren 29an izango da Urbil merkatal gunean.

Karabana honek elikagaiak errefuxiatuen kanpamendue-

tara eraman nahi ditu: arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atunak eta konpresak.

Ekimen honetan parte hartu nahi baduzue herriko ikastetxeetan eta supermerkatuetan edukiontzia aurkituko dituzue.

Alboka txiki abesbatza

Alboka Txiki abesbatzak entseguak gaur hasiko ditu, hilaren 24an. 6 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoei irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entsegua Zumaburuko eliza azpiko lokalean egingen da, astelehenera 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzete!

Alboka abesbatza

Alboka abesbatzak 65 urte arteko herritarrek animatu nahi ditu parte hartzera. Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitzete!

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrez-

ko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, bi erloju, urrezko pultsera, betaurreko graduatuak, eraztun bat eta MP3 bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Maria Auxiliadoraren meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren meza gaur, hilaren 24an, ospatuko da, arratsaldeko 17:00etan.

Kukukaren egutegia

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolaren aldeko egutegiak salgai daude 5 euroren truke Orbela belar dendan, Urruzola mertzerian eta Basaundiko Denda-Berrin.

Ostadar Atletismo

Korrikarako zaletasuna baduzu gerturatu zaitz Ostadarko

bulegora.

Ekipazio berria egitera goaz eta herriko gizon-ema-kume guztioi luzatu nahi dizuegu Lasarteko korrikalari taldeko kide izateko aukera.

Informazio gehiago Ostadarreko bulegoan, geltoki kalea 25ean, edo 943360433 telefono zenbakian.

Komentatu zure lagunekin eta animatu zaitzete!! Epea urtarrikal 31n amaitzen da.

Ostadar Loteria

Ostadarrek urtero "El Niño"ko loteriaren batera nekazal etxe batean bi pertsonentzako asteburua pasa zozketatzen du eta aurtengo zenbakia irabazlea 70.013 izan da. Beraz, irabazleak Ostadarreko bulegora deitu behar du saria eskuratzeko. Tel: 943360433.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitzak

Udalbiltzaren absulzioaren inguruan Bai Euskal Herriari ekimenaren balorazioa

Bai Euskal Herriari herri ekimenak, pozez gainezka hartu du Espainiarren Auzitegi Nazionalak Udalbiltza auziaren karietara gaur plazaratu duen ebazpena.

2003. urtearen hasieran UDALBILTZAko kide eta langileak atxilotu eta nazio instituzioaren egoitza eta jabetzak bahitu zituztenetik ia zortzi urte bete diren honetan ezin dugu gure poza ezkutatu. Azken urteetan Espainiarren Auzitegi Nazionalak plazaratu dituen ebazpenak justiziarengandik urrun kokatu izan direla ikusita, begiak ireki arazi dizkigute eta Udalbiltza auzia amaitu bada ere ezin dugu ahaztu gaur egun oraindik proiektu guztiak gazarzgarri ez diren eskenatoki batean aurkitzen dela gure herria.

Gure besarkada eta berotasuna helarazi nahi diegu Udalbiltza auzian auziperatuta izan diren herri ordezkari eta Udalbiltzako langile guztiei.

Euskal Herriko Udal eta udal hautetsien biltzarren ziletasuna zaltzaren jarri nahi izan dute. Epaiaketa honen ondorioz, Euskal Herriaren eta euskal herritarrentzat ziletasun izateaz gain UDALBILTZA BEHARREZKOAK DELA FROGATU DA.

Hau honela izanik dei egiten diegu Euskal Herriko alderdi politiko guztiei, nazio gisa antolatuta eta egituratuko gaituen tresna ber-hartzera. Euskal herritarrok behar dugulako, Euskal Herriak ezinbesteko duelako.

Lasarte-Oriako
Bai Euskal Herriari

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezu txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Landaberri ikastola-institutua

MATRIKULAZIOA urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra

**Zeure herrian bertan,
euskaraz**



HEZKUNTZA PROIEKTU BATERATUA ETA GAURKOTUA, ESKOLA KOMUNITATEAK ADOSTUA

- 2 urtetik 16 urte bitartekoa
- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituen
- Herrian integratutako plangintza
- Atzerriko hizkuntza:
 - ingelesa 4 urtetik aurrera
 - frantsesa aukeran, DBHko 2.mailatik aurrera
- Teknologia berrien erabilera txiki-txikitatik. Baliabide digitalak eta ikasgela guztietatik sareko konexioa
- Behar berezia duten ikasleentzat:
 - gela egokituak, laguntzako irakasleak, aholkulariak eta orientatzaileak
- Kirola, antzerkia, dantza eta bestelako eskolaz kanpoko jarduerak
- Garraio-zerbitzua
- Goizeko 08:00etatik 09:00etara harrera zerbitzua.
- Jangela zerbitzuaren kudeaketa.

Bilerak:

- **DBHkoak** otsailaren 1ean 18:00etan Pintore kalea 2an
- **IH eta LHkoak** urtarrilaren 28an 15:15ean Garaikoetxean

Matrikulatzeko tokiak:

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO matrikulak. Orduetgia: 09:00etatik 13:00etara
Garaikoetxea eraikinean • Tel.: 943 37 06 62 • pglandaberri@euskalnet.net

DBH-KO matrikulak
Pintore kalea 2an • Tel.: 943 37 28 90 • landabhi@euskalnet.net